



MARTA VENTURA

Haritz taldeko dantzariak, ezpata-dantzan, Donostiako Goizaldi taldearen 50. urteurrenaren inguruko ospakizunetan, 1998ko ekainean.

## Dantzaren 400 urtetako urratsak liburu batean bildurik

*‘Elgoibar dantzan’ liburu osatu dute Haritz taldeak eta Udalak*

Erredakzioa / Donostia

Elgoibarko dantzaren eta txistuaren azken 400 urteotako historiaren berri ematen du *Elgoibar dantzan* liburuak, eta, bidenabar, hango Haritz euskal dan-

tzari taldearen ibilbidea du hizpide. Izan ere, Haritz dantzari taldeak bere 25. urteurrena dela-eta argitaratu du liburuak, Elgoibarko Udalaren, Danobat Taldea enpresaren eta Ongarri kultur taldearen laguntzaz.

OIER ARAOLAZA, Pello Arrieta, Koldo Lizarralde eta Jose Inazio Sarasua dira *Elgoibar dantzan* liburuaren egileak, eta Juan Antonio Urbeltzek idatzi die hitzaurrea. Pello Arrieta XVI. mende amaieratik Espainiako Gerra Zibilera bitarteko epeaz arduratu da. Haritz taldeko zuzendari, Elgoibarko Musika eta Dantza Fundazioko lehendakari eta

Euskal Herriko Txistularien Elkarteko idazkari Jose Inazio Sarasuak, berriz, Espainiako Gerra Zibiletik 1973. urtera arteko epea aztertu du —urte horretan sortu zen Haritz euskal dantzari taldea—, eta Haritz taldeko kide Oier Araolazak azkeneko 25 urteak hartu ditu —Haritz taldearen lehenengo 25 urteak, hain zuzen—.

Eusko Ikaskuntzako kide Koldo Lizarralde, azkenik, Elgoibarren egindako ezpata-dantzen inguruko datuak bildu ditu kapitulu batean, eta beste hainbat tokitakoenekin alderatuz ikusi dituen parekotasunak eta desberdintasunak aipatu ditu kapitulu horretan. Koldo Lizarralde berak Elgoibarko txistularien historia aztertu du, XVI. mendetik hona, *Elgoibar dantzan* liburuako beste kapitulu batean.

Elgoibarko dantzaren eta txistuaren azken 400 urteotako historiaren inguruko datuak biltzeko, Elgoibarko bertako eta Oñatiko artxiboak arakatu dituzte egileek. Historia horren interesa Elgoibarko biztanleek izan dezaketena baina areago

ikusten dute egileek: «Orain berrehun edo hirurehun urte gure herrian zeuden ohitura berak izango baitziren inguruko herrietan», Jose Inazio Sarasuaren hitzetan.

### Euskal dantzaren inguruko datu ugari

Izan ere, liburuako 300 orrialdeetan, euskal dantzaren munduaren inguruko datu ugari aipatzen dituzte egileek. Argazkiez eta irudiez ondo apaindu dute liburuak, eta, lan grafikoa osatzeko, Haritz taldearen beraren artxiboa eta Julian Azkue, Jesus Mari Sarasua, Jose Labordeta, Indalezio Ojanguaren eta beste hainbat argazkilariren lanak erabili dituzte.

Elgoibarko Haritz taldeak iaz bete zituen 25 urte, eta orduan izan zuten liburu bat argitaratzeko ideia, Haritz taldearen ibilbidea jasotzeko, baina, azkenik, argitalpena atzeratu egin zuten, Elgoibarko dantzaren historiaren inguruko datuak emateko, eta iragan astean egin zuten *Elgoibar dantzan* liburuaren aurkezpena.

## Iturbe-Irastorza bikotea garaile EITB Trikiti Sarian

■ Parte-hartzaileen «oso maila ona» azpimarratu dute

Joxi Ubeda / Donostia

EDURNE ITURBE eta Oihana Irastorza izan dira EITB Trikiti Sario irabazleak, larunbatean Tolosan jokatu zen saio nagusiko epaimahaikideek hala erabakita. Aitor Letamendia-Arkaitz Lasa bikotea izan zen bigarrena, Jon Ostolaza-Rakel Pujana hirugarrena, eta Josu Arrizabalaga Izer-Mikel Gorrotxategi *Alabier* laugarrena.

Edurne Iturbe soinu jole urretxuarrak iaz ere irabazi zuen EITB Trikiti Saria, baina iaz Andoni Elortza pandero jolearekin parte hartu zuen, eta aurten Oihana Iras-

torzarekin. EITB Trikiti saria irabazteagatik 300.000 pezetan jasoko dituzte (12.000 libe-  
ra inguru).

Bai antolatzaileek, bai epaimahaikideek —Imanol Urkizu, Iñaki Aierbe, Gari-koitz Mendizabal eta Joxe Juan Ugalde—, eta baita bikoteek ere, «oso maila ona» ikusi dute aurtengo EITB Trikiti Sarian. «Lau urteetan, soinu jole aldetik izan den handiena», Jon Ostolazak EGUNKARIARI esan dionez. Aitor Letamendia bat dator harekin, eta baita Mikel Gorrotxategi *Alabier* ere: «Denok hortxe nonbait geundela ikusten genuen».

Urtarrilaren 1ean  
Larunbata  
Arratsaldeko 6etan  
Herri Antzokian  
**ORDIZIA**

BERTSO JAIALDIA

TXAPELKETAKO  
**ERREBANTXA**  
nor baino nor

JESUS MARI IRAZU • TXOMIN GARMENDIA • AMAIA AGIRRE • AITOR USANDIZAGA  
**ERNIOPE**

ANDONI EGARA • INIGO MANZISIDOR "Mantxi" • JULEN ZULAIKA  
**ZARAUTZ-JAI TXIKI**

ANTOLATZAILEAK  
ARGIBERRI ELKARTEA  
Egunkaria

LAGUNTZAILEAK  
Euskal Herriko Bertsozale Elkartea  
Ordiziako Udala  
SEGURA TRATIA